# 1.GAIA: KAZETARI LANA EH (I)

## 1. KAZETARI - LANA

Kazetari ona izateko…

- Kazetari sena edukitzea. Kazetaritza bizi eta maite egin behar da nahiz eta zaila izan daitekeen. Ez da guztiz deskonektatu dezakezun lan bat, fabrika batean izan daitekeen bezala. Zure lan orduetatik kanpo ere gaurkotasunari lotuta egon behar duzu, gertatzen den guztiaz pendiente.
    - Jakinmina (zer, zergatik eta nola).
    - Saturazioa, irudikeria.
    - Izaera kritikoa (behatzaile zorrotza) zorrotza izan zaitezke baina beti errespetuz, aurrean duzun pertsona horrekiko errespetuz.
    - Intuizioa ("kazetari usaimena"). Hau albiste gai da, hemendik zerbait sortu daiteke, handik zerbait etorriko da ziur...
- Lead estiloaz jabetzea. Albisteak zuzen eta labur jorratzea; ez da poesia, poesia denbora librean bakarrik.

    *Egunkari batek, astekari batek bere idazteko teknika berezia dauka: periodiko bat, asteroko bat, ez da liburu bat.*
    *Arintasuna eta sakontasuna uztar daitezke, eta, nola ez, baita gustagarritasuna ere. Ahal den euskararik errazena eta argiena erabil dezagun. Ez dezagula erabili inork ulertu ezinezko hizkuntza*

    Joxe Artetxe (1969)

- Hizkuntza(k) ongi menperatzea. Hizkuntza guztiak menderatzea ondo legoko noski, baina ezinezkoa da. Garrantzitsua da lehenengo zurea ondo menperatzea, hura zaindu eta maitatzea eta gero beste hizkuntza batzuekin hastea. Albiste baten testu jakin bat bi aldiz irakurri behar bada ongi ulertzeko, testua desegokia/gaizki dagoenaren seinalea da.

    (OSO GAINETIK PASA DU, EZ DA BURUZ IKASI BEHARKO)

    - Gizaki eleanitzak (euskara, gaztelera, ingelesa/frantsesa, alemaniera..)
    - Lehenengo geurea ongi zaindu eta menperatu (Euskaltzaindia, Estilo Lib.,...)
    - Larramenditik (1728) → 1968 → gaur egun

- Etikadun pertsona izatea. Zure jarduerak ze mugak dituen jakitea, lehenengo pertsona zara eta gero kazetaria: hilzorian dagoen pertsona bati lagundu ordez, azken hitzak atera nahi izatea esaterako. Hor muga bat egon beharko litzateke, gaur egun galtzen ari dena. *"Ha muerto un vasco y hay que sacarle brillo"*
    - Egiari zor zaion errespetua
    - Iturriak alderatu: denetik egon behar du, alde eta kontra, iritzi bat eta beste, konpentsatua egon behar da ez du balio 8 iturrietatik 8rak ezker abertzalekoak izatea, horrek ez dio konfiantzarik eskaintzen irakurleari
    - Egitateak, iritziak eta interpretazioak ez nahastu. Gauza bat da zer gertatu den, beste bat da zure iritzia zein den (alde edo kontra), eta bestea gertakari horrekiko zein interpretazio egin diren.

## 2. EUSKAL ESTILOAZ (Dena saltatu du, ez du ezer azaldu hemen)

## 3. JARDUERA INFORMATIBOA

- Hauek dira edozein mezubideren jarduera informatiboa mugatzen duten faktoreak (Chomsky, 1990)
    - Enpresaren osaketa aintzat hartu behar da hedabide baten zuzendaria hedabidearen beraren administrazio kontseiluak hautatzen duela; kontseiluaren ildoetatik ateratzen hasten bada zuzendaria, toke bat eman eta bota egingo dute kargutik. Orduan, nork ezartzen du hedabidearen ildoa?
    - Publizitatea segun zenen kontra idatziz gero adi ibili, gero ez du publizitatea jarriko eta…
    - Informazio iturri nagusiak (komunikazio edo prentsa kabineteak)
    - Ideologia nagusia: ez bakarrik egunkariaren ideologia, baita gizartean dagoen ideologia nagusia. Nahiz eta gero ez egon ados, garbi dago hemengo gizartearen ideologia nagusia kapitalismoa, demokrazia liberala dela.
- Planetako lau oinarrizko elementu: haizea, ura, lurra, sua eta INFORMAZIOA! → 5. boterea?
- Gaurkotasun sistema informatiboa definitzen duten ezaugarriak (I. Ramonet, 1996)

- Informazio oparoa baina informazioa ere desinformazioa izan daiteke, zoratu egiten gaituzte.
- Poluzio informatiboa hainbeste informazio dago, non jada ez dakigun zer den guztiz egia, gezurra…
- Informazioa = merkantzia da, balio bat du informazio horrek (diru bat) *"Así han pasado el puento los jugadores del Athletic"* hori benetan albiste bat da? Ze inporta dit neri horrek? Horrek "klik" bat jasotzen duen bakoitzean diru bat diru kantitate bat biltzen da… zer da benetan informazioa? edozerk balio du merkantzia lortzeko?
- Aldakortasuna informazioa birziklatu egiten da, eguneratu, berritu.
- Howard Gardner: "Kazetariak eta genetistak XXI.mendeko kontrolatzaileak". Gizartearen geneak, gizartearen izateko modua, gizartearen izaera aldaketen ari direnak komunikabideak dira, aldaketa guztien egileak komunikabideak dira. Kazetariak eta komunikabideak kontrolatzen dituzte gure geneak.
- "*Trantsizio garaia bizitzen ari gara, oraindik ere mutazio horrek nora garamatzan oso ongi ez badakigu ere. Eraikin berrian bizi gara orain, baina oraindik lehengo etxe zaharrean biziko bagina bezala portatzen ari gara, ez baikara oraindik behar bezala aldaketa horietaz jabetu".* I. Ramonet (1996)

## 4. ALBISTE GAIAK

- Albiste gaia zorian dagoen gertaera.
- Albistea izateko.
- Albistegarritasuna: notizia zer den definitzen duen irizpide multzoa.
  - Elementurik garrantzitsuenak:
    - Protagonistaren nortasuna: ez da berdina erregeak dutxatik erorita hanka apurtzea edo guk hanka apurtzea
    - Interes publikoa: afektatu kopurua gauza bat da interes publikokoa eta bestea publikoaren interesekoa, zenbat eta jende gehiagori eragin gertatutakoak, interes gehiago

izan behar luke nahiz eta hau gaur egun aldatuz doan. / Publikoaren interesa: kotilleuak adibidez, jendeari interesatzen diona eraginik izan gabe.

- Gatazka maila: bizilagunen arteko mobida batek ez du garrantzia handia izango baino bai adibidez Bilboko bi auzoen arteko katazkek
- Ikusgarritasuna: eztakit ze eklipse egongo da gaur gauean.
- Bitxikeria maila: txakur batek gizon bati hozka egin dio, hori EZ litzateke albiste izango baina aldiz, gizon batek hozka egin dio txakur bati BAI izango litzateke albiste.

- **GATEKEEPING (David Manning White-n bertsioa)**
  - Neurri handi batean gure bizimodua, giza-harremanak eta inguratzen gaituen mundua *gatekeeping* prozesuak mugatzen ditu. Albiste diren gertakari guztiak ez dituzte ematen hedabide guztiek; adb: erraustegiaren aurkako informazio bat zabaldu baldin bada, Garak emango luke eta Diario Vascok ez; Diario Vascok ez luke albiste hori pasatzen utziko, filtro moduko bat da. Zertaz hitz egin eta zertaz ez erabakiko dutenak txioak izan daitezke baita ere (gure egunerokotasuna mugatzeko gai dira), lehen gehienetan hedabide handiek erabakitzen zuten zerri buruz hitz egingo zuen gizarteak eta zerri buruz ez, baina gaur egun oso bestelakoa da.




Albiste iturriak Hartzailea

- **ALBISTE GAIAK**
    - Albisteak hautatzeko edo alboratzeko unean *gatekeeper*-ak ez dira libreak, hainbat faktoreren eraginpean baitaude:
        - Politikoak
        - Ideologikoak
        - Kulturalak
        - Sozialak
        - Profesionala
        - Pertsonalak

## 5. ERREALITATEA ETA GU

- Kazetaria, bitartekaria iritzi sortzailea, errealitatearen eraikitzailea.
- **L. Sigal:** *irakurleok honako hau ahazten dugu sarritan, albisteak ez dira errealitatea, baizik eta errealitatearen lagin bat, besterik ez.*

    *Albistea ez da jazo dena, baizik eta norbaitek esatea hau eta beste gertatu da edo gertatuko da; hori egin zaigu albiste.* Kazetariak zer gertatu den azalduko digu, beti kazetariaren betaurrekoen bidez ikusiko dugu errealitatea.

- **H. Gans:** *Azken batean, albistea, besteak beste, hauxe dugu, botereak errealitatearen inguruan egiten duen interpretazio ariketa.*
- **Gaye Tuchman:** *Albisteak estatuaren legitimitatea ere berresten du, transnazionalen kapitalismoaren eta estatuaren beraren artean dagoen erlazio zuzena ezkutarazten baitu. Alde horretatik, Albisteak kapitalismoari berari ematen dion laguntza oharkabe igarotzen zaigu.* Ez gara konturatu ere egiten, kapitalismoari laguntzen ari zaiela ez gara jabetzen, iritzi kritikorik gabe irensten ditugu.
- **Mz. Albertos:** *Albistea gaurkotasuna duen egiazko gertaera argitaratu gabea da. Berori audientzia zabal bati jakinarazten zaio. Prozesu gori gauzatu ahal izateko, albistearen hedapena kontrolatzen duten subjektuek, lehenengo eta behin, gertaera hori bildu behar dute, gero interpretatu eta azkenik, forma eman. Albistea, beraz, 'prozesu luze horren ondorioa da'.*

## 6. INFORMAZIOA, INTERPRETAZIOA ETA IRITZIA

Genero desberdinak, helburuak ere desberdinak

- Informazioan → Gertaeren berri soila
- Interpretazio Kazetaritzan → Hartzailea orientatu
- Iritzi Kazetaritzan iritzia bideratu, hartzailea konbentzitu, limurtu
- Interpretazio Kazetaritza gorabidean: orain ia edozein albistek du ukitu interpretatibo edo baloratzailea. Kontuz iritziarekin, zu ez zara inor txarra edo ona den esateko. Beste gauza bat da testigantza bat baliatzea esateko "lotxagarria da …." (Tomas) eta aipua jartzea.
- Kazetaritza espezializatua ere berdin

Estiloak

- Informazioa → Iraulitako piramidea
- Interpretazio Kazetaritza → Egitura librea, *lead*, interpretatzailea, analisiak, balorazioak, *background*, aipuak, egitura logikoa...
- Iritzi kazetaritza → Ebazpen judizialen antzera, silogismoaren egitura (premisa nagusia, premisa txikia → ondorio logikoa)

## 7. PORTAERA ETIKOAK ETA DEONTOLOGIKOAK EH

- Egiari zor zaio errespetua
- Iturriak alderatu
- Titulua eta albistea bat etorri
- Onestasuna: zuzen jokatzea
- Bereizi generoak
- Etika gidari
- Umiltasuna (errakuntzak aitortu)

*Nola joan prentsaurreko batera? (BBCren aholkuak)*

- ➔ *Udalak, alderdiek… deitzean, zerbait saldu nahi digute beti. Orduan, erosi erosi behar dut besterik gabe? Kritikotasunez.*
- ➔ *Gaiari buruz jakin, informatu lehenago. Informazioz jantzita joan. Galdera batzuk aldez aurretik pentsatuta joan. Ezin da joan ezer jakin*

*gabe, dena irensten delako bestela. Adb: erraustegia azaltzen Markel Olanok prentsaurrekoa ematen badu, informatu lehenago nola doan asuntoa, hortaz galdetzeko etab.*

- ➔ *Zerbait galdetzean, galdera irekia (erantzuna ez izatea “bai”, “ez”).*
- ➔ *Aurrealdean esertzea aberasgarria izan daiteke; prentsaurrekoa ematen duenaren aurpegiak, keinuak… behatzeko.*
- ➔ *Galdetu, ez egin soilik eskribanu lanak, galdera onak planteatu eta beti batenbat egin*
- ➔ *Izenak zaindu, modu egokian esan eta are gehiago idatzi. Pertsona bati entzutea gehien gustatzen zaiona bere izena da.*

# 2.GAIA: KAZETARI LANA EH (II)

## 1. KAZETARI-LANIK OHIKOENAK

Kazetaritzako fakultateetan ikasteari "egiaren gurutzatua" dela sinistarazten zaio. Kazetagintzaren plazara abiatzen denean, ordea, hauxe konprobatzen du: batetik, egiaren iturririk ez dituela; bestetik, egia faltsutuaren aurrean irizpide falta dagoela, eta, azkenik, egia zabaltzek mediorik ez dagoela.

Manuel Vázquez Montalbán

- Ez zaio egiarik iristen.
- Egia iristen zaio baina trasgibersatua.
- Egia izanda ere, batzuetan medio falta izaten da horren berri emateko, hortaz berdin dio egia duzun edo ez.

## 2. KALEKO LANA, MAHAIKO LANA

- Hasiberrien drama eta ikara: Erredaktore buruaren aginduetara.
- Lehen lana… kalekoa (seguru asko): prentsaurrekoak, mahainguruak, hitzaldiak, bilkurak, kultur ekitaldiak.
- Mahaiko lana desberdina da: planifikazioa, bilerak, sekzioa(k) antolatu, teletipoak jarraitu, kolaboratzaileak koordinatu, albisteak eta erreportaiak prestatu…
- Zein da hobea?
- Hasberriak lagun-giroa estimatzen du.

## 3. *LEAD* HIZKUNTZA

- *Lead* hizkuntza: Estilo zuzena, txukuna eta arina.
- *"Gertakarien mamia adierazi behar da. Ez da eman behar, alegia, ez zehastazunik gabeko albisterik ez argitasunik gabeko daturik"* (Jose Ramon Zubimendi, 1995).
- Konfirmatu gabeko zurrumurruak ez dira hedatu behar, ez baita on *"omenkerietan"* ibiltzea beti. Estilo kanpo-larrosak eta arranditsuak ez du zentzurik, kazetari hasberria albisteak egiten hasten baita, eta ez literatur elkarrizketak.

## 4. TESTUAK LABURBILTZEKO ETA BERREGITEKO UNEA

- Hasberriengan gehien estimatzen den dohaina: testuak eta gertakariak laburbiltzeko eta berregiteko gaitasuna.

  Gure lehendabiziko kazetari-lana (hitzaldi bat, esaterako) lantzeko zenbait aholku interesgarri:

  - Abiatu aurretik: erlaxatu, ideia nagusiak nabarmentzeko asmoarekin.
  - Apunteak hartu, grabagailua eraman. Agian grabagailuak errorea eman dezake, hortaz komeni da apunteak ere hartzea eta ez deskonektatzea.
  - Entzuten ikasi: mezuaren funtsaz jabetu. Oharrak errepasatu, garrantzitsuena nabarmendu.
  - Orokorkeriak alboratu; lotsarik gabe galdetu.
  - Ez alferrik galdu laudorioetan. Jarrera landu, ze askotan oso *kolegeo* jarrera hartzen da elkarrizketatuarekiko, bestela emango du lagunen arteko afari batean zaudela eta ez da hala, lanean zabiltza. Aupa Arnaldo, ba ez. Arnaldo Jauna edo Urkullu Jauna.
  - Atentzioa, hasiera.hasieratik piztu (idazterakoan, jakina).
  - Testuingurua -giroa- azaldu.

- Teknika berak erabili prentsaurrekoak, prentsa-agiriak, dokumentuak, txostenak, teletipoak… lantzeko
- *“Politikariaren lana amaitzen delarik, hasten da kazetari-lana. ordun, erredaktore ilun eta kaxkar batek. Ministerioko mataza askatu beharko du, bere testua harik eta irakurleen aurrean era ulergarri eta zuzenean agertu arte”* (James Reston, 1956, TNYT).
- Kazetari lanik arruntena: testuak laburtu, berregin, moldatu norberaren Estilo Liburuaren arabera. Ondoren, zuzendu.

## 5. TITULATZEKO GARAIA

- Titulatzerakoan kazetari hasiberriak zailtasun ugari ditu: esperientzia, bidelagunik onena.
- Asmatu ezinik bazabiltza, amaierarako utzi; albistea idatzi, berrirakurri eta zuzendu ondoren, helduiozu tituluari; aukera desberdinak planteatu eta… onenarekin gelditu.

- Arau zurrunik ez da; irizpideak oso aldakorrak dira. Honako faktore hauek aintzat hartu behar dira:
    - tokian tokiko kultura
    - medio bakoitzaren joera
    - kazetaritza-generoak
    - sail desberdinak
    - hizkuntzaren baliabideak

- Berriaren Estilo Liburuak proposatzen dituen aholkuak:
    - Osotasun sintaktikoa:
        - Kutsu militarra uztailaren 14ak
        - Kutsu militarra izan du uztailaren 14ak (+)
    - Ahal dela, iragana ez erabili ("atzo" sartuz gero, bai)
    - Hainbat hobe, puntuazio zeinurik gabe: ,;!? ()
        - Salbuespenak [ , eta "..."]
    - Izen-abizenak: osorik edo abizena soilik. Inizialik ez. (J.M. Berendia…)
    - Lerro amaieran aditzak eta sintagmak ez moztu (juntagilua, behera pasa …. egin // dute; Bi // lapur (-)
    - Hitz-errepikapenik ez (ezta tartekietan edo orrialde bereko tituluetan ere)
    - Titulua eta albistea bat etorri.
    - Tituluak neurtu egiten dira.

## 6. PRENTSAURREKOAK ETA PRENTSA AGIRIAK

- Lanik ohikoenak dira
- Aparteko misteriorik ez dute (gitzaldiari dagozkion agolkuak gogoan har)
- Alea eta lastoa bereizi: garrantzitsuena nabarmendu beti
- Prentsa-agiriak erosoagoak dira.
- Prentsaurrekoaren eta prentsa-agiriaren egiturak eta albistearenak ez dute -derrigorrez- zertan bat etorri beharrik.



- Informazio iturriak aipatu. Eta tarteka gogorarazi zein den, adibidez hurrengo paragrafoan iturri berdinaren zerbait idatzi behar duzunean, bestela irakurlea igual galdu ingoa.

## 7. ADIERAZPENAK NOLA EMAN

- Funtsezko osagaiak dira
- Lau mota daude: zuzena, zeharkakoa, bitarikoa eta interpretatzailea.
  - Estilo zuzena

    Iñigo Urkullu: “Beharrezkoa da ETAk armak ematea eta deuseztatzea”.

    “Beharrezkoa da ETAk armak ematea eta deuseztatzea”, esan du Urkulluk.

  - Zehar estiloa

    Iñigo Urkulluk esan du beharrezkoa dela ETAk armak ematea eta deuseztatzea

    GAIZKI, adb: Iñigo Urkulluk esan zuen “beharrezkoa da ETAk armak ematea eta deuseztea”.

    - Pastorren ustez, zehar estiloa da berez denek erabili beharko luketena. Kontua da, lanketa bat eskatzen duela eta hortaz, gaur egungo mundu honetan, denboraren pean bizi garen mundu honetan, zuzeneko estiloa erabiltzea da egun ohikoena, baina ez da aproposena.

  - Estilo bitarikoa
  - Estilo Interpretatzailea

# 4. GAIA: INFORMAZIO-ITURRIAK

## 1. INFORMAZIO-ITURRIEN GARRANTZIA

- Gure lehengaia: ezinbestekoak, oinarrizko elementuak
- Kalitatearen bermale: nolako iturriak, horrelako albisteak
- Era askotako iturriak: pertsonak, erakunde ofizialak, datu-bankuak, gizarte-mugimenduak...
- Iturri guztiak, ordea, ez dira berdinak..
- Berriemailearen lana, beti ezinbestekoa
- Masa-hedabideek ez dituzte denak modu berean tratatzen (iturrien profesionalizazioa: Komunikazio Kabineteen lana)
- Agintearen inguruko iturrien aurrean mantendu beharreko jarrera kritikoa.
- Agenda = statusa (zenbat eta lodiago edo “lagun” gehiago, komenigarri)
- Informazio-trukaketa eguneroko lanean: Oso gauza arrunta
- Irizpide profesional komunak (*organizational socializations*)
- Iturrien status-a definitzen duten baloreak (H.Gans)
    - Iragan emankorra: iraganean beste zerbait eman dizu eta badakizu iturri ona dela
    - Produktibitate maila egokia
    - Egiazkotasuna
    - Fidagarritasuna
    - Baimendua izatea
    - Kalitatezkoa izatea
- *“Informazio-iturriak ez dira albistearen ekoizpen-prozesuaren abiarazlea soilik, berorren partaidea baizik. Albistearen atal desberdinak baldintzatzeaz gainera, zenbait unetan, albistea bera gobernatzen dute”* G.Cesareo (1986)
- Beraz, albistearen sorburua baino zerbait gehiago ere badira.
- Informazio iturrien eta kazetarien arteko harremanak nolakoak izan behar dira? (Gieber / Johnson, 1990)

    - Guztizko konfrontazioan oinarriturikoak (-) Emaitza gutxi emango du honek
    - Hartueman emankorretan sustrauturikoak (+) hau da normalena.
    - Gehiegizko harmonian oinarritutakoak (-) ezta ere ez da komenigarria
- Iturriak ongi tratatu, norberaren eremua errespetatuz.

## 2. ITURRIEN ESLEIPENA

- *On the record*: Atribuzio zuzeneko iturriak dira; prentsaurreak, prentsa-agiriak, adierazpenak. Ematen dizu, erabili dezakezu eta esan dezakezu nork esan duen. Esan dezakezu bai nork esan dizun bai esan duena bai.
    - Informatzeko ekimena iturriarena da (normalena)2
    - Argiena da, bai batzuentzat zein besteentzat.
    - Informazio erreserbatua ezin da lortu, mundu guztiarentzat zabaldutako informazioa baita. Ez duzu lortuko beste jendeak ez duena.
- *Off the record*: On the record-aren aurkakoa. Ezin da esan ez iturria ez informazioa. Ezin da esan nork esan duen ezta zer esan duen ere. Adibidea: gosari informatiboak, balio du tratua eta jendea ezagutzeko,
    - Kazetariari eman baina ezin dezakeen informazioa da.
    - Nahasmen handia dago. Beste batzuen ustez honakoa hau delako:

      *berriemaileari ematen zaion eta berak erabili dezakeen informazioa da, beti ere, informazio-iturriaren nortasuna sekretupean mantentzen da.*
    - Azken interpretazio hori ez da zabalduena

- Filtrazioak
    - “Filtrazioa eskupetiko, isil-misilka eta indibidualki –iturritik kazetariari zuzenean–, iritzi publikoa bideratzeko asmoz, igarotzen uzten den informazioa da, beti ere, albistearen jatorria zein den inolaz ere argitu gabe. Nuñez Ladeveze (1991)
    - Noiz agertu? Krisi garaietan, batik bat.

- Helburua: ofizialki argitara ezin eman daitezkeen informazioak kaleratzea, eta, era horretan, herritarren iritzia bideratzea.
- Erabiltzaileak: agintedunak (normal.)
- “Prentsa marrazoen eskola da, odolak uretan utzitako arrastoren bidera hurbiltzen diren marrazoak alegia”
- Filtrazio mota desberdinak (E. Abel, 1987):
    - Norberaren “Ego”arekin lotutakoa.
    - Asmo onez egindakoa
    - Filtrazio politikoa (prentsaren arreta bereganatzeko) Cifuentesen kasua, mendekua + filtazioa, bi gauzak egon ziren.
    - Mendekuz egindakoa (Norbait kaltetzeko asmoz)
    - Zunda-globoa. Estatuak apropos filtratu indarrean jarri nahi duten lege bat (prezio igoera adibidez), ikusteko jendeak nola erreakzionatzen duen. %50 esan eta gero agian %10 da.
    - Telefono bidezko salaketa

## 3. DESINFORMAZIOA ETA ZURRUMURRUA

- Filtrazioak= arazo iturri dira (askotan)
- Arazoak baztertzeko, onena iturriak identifikatzea da; lehenbailehen gainera: atariko lerroaldean, alegia.
- Filtrazioak duen arrisku handienetakoa desinformazioa da.
- Desinformazioa informazio-iturriak kazetariari okerreko informazioak eman eta horrek egiazkoak bailiren argitaratzen dituenean agertzen da.
- Desinformazioa arma bat da, desinformatzaileak bere helburua lortzeko asmoz abian jartzen duten mekanismoa. Desinformazioak intentzionalitatea behar du izan; hots, informazio-iturriak desinformatzeko asmoa behar du izan.
- Helburuak era askotakoak izan daitezke: herritarren iritzia aldatze edo bideratzea, norberaren helburu taktikoak edo estrategikoak lortzen laguntzea.. Desinformazio mota asko dago. Aukera asko daude, guztizko gezurretik hasita erdipurdizko egiararaino.
- Kazetariaren konplizitatea behar da (ohartuki ala oharkabe)

- Etikaz kanpo dago.
- Helburu bakarra: efektibitatea, nahasmena sortzea.
- Etikadun kazetariak baztertu beharreko prozedura.
- Zurrumurrua ez da albiste (ez litzateke izan behar)
- Ezaugarririk nabarmena iturriaren inguruko nahasmena da.
- Argitaratuz gero, kazetaria hartzaileari fede-ekintza bat eskatzen ari zaio (sinistzazu neronek esaten dizudalako)
- Pertzepzioak, susmoak, iritziak, usteak, ustekizunak dira.
- Zurrumurrua albistearen ataria izan daiteke (batzuetan horrela).

## 4. INFORMAZIO-ITURRIRIK GARRANTZITSUENAK

### A. Informazio-iturri komunak

- **Albiste agentziak.** Komeni zaiena argitaratzen dute.
  - Garrantzitsuenetarikoak:
    - Associated press
    - Reuters Press
    - United Press International (UPI)
    - France press
    - Espainiako Estatuan: Europa Press eta EFE.
  - Ezinbestekoak, oso azkarrak eta erabilterrazak
  - Morrontza handia media txikientzat
  - Bi erabilera posible: Informazio bihurtu edo Informazio osagarria izan. Zuk egin dezakezu agentziatik heltzen zaizun informazioa dagoen moduan sartu edo informazio osagarri moduan erabili, zuk idazten duzu albistea baino gero hainbat datu hartzen dituzu borobiltzeko.
  - Albiste-agentziek *beat journalism* dute helburu (ez Ik. Kaz)

    *"Albiste-agentziak informazio-iturri baino gehiago, informazio-ekoizle bezala hartu behar ditugu; azken batean, enpresa horiek beren iturri propioak dituzte eta beren informazioak lantzen dituzte, ondoren mezubideei saldu ahal izateko."* (L. Nuñez Ladeveze, 1991)

    - Norberak propio lantzen dituen iturriak. Kontaktu eta ezagutzen bidez lortu duzun iturria.
    - Aholkuak:
        - Kazetariak teletipoa ahalik eta gutxien erabili beharko luke.
        - Ez ezazu itsu-itsuan sinistu teletipoek dioena.
        - Kazetariak teletipoa goitik beherea irakurri behar du, sarritan garrantzitsuena amaieran egon daitekeelako.
        - Kontuz! azkena aurrena izaten baita askotan.

- **Beste medioa**
    - Albiste iturri oparoa izaten da.
    - Irratia eta TB → Bapatekotasuna.
    - Prentsa → Gogoetarako bide.
    - Esklusibak eta jatorria aipatu beharra (konkurrentziak badira ere)
    - Iturriak beti aipatu behar dira. Horrela behar luke izan, bederen.

- **Komunikazio Kabineteak**
    - Komunikazio kabineteak gizartearen aurrean eragin positiboa izan nahi duten informazio-iturri espezializatuak dira; bere lana honako gau da: gizarte nahiz ekonomia, kultura, politika edo kirol munduko erakunde publiko zein pribatuen beharrizan informatiboak kudeatzea, bai barne komunikazioari, bai kanpo-komunikazioari begira.
    - Asko garatu dira.
    - Eragin handia dute.
    - Sektore guztietan daude: alderdi politiko eta sindikatuetan, instituzioetan, enpresa munduan, erakundeetan…

- **Dokumentazio-iturriak**
    - Datu baseak. internet..
    - Asko garatu dira azken urteotan
    - Bilatuz geroz, informazio ugari dago gure esku.

B. Norberak propio bilatzen dituen iturriak

- Iturri propioak = prestigioa
- Informazio iturri propioak inbertsiorik onena dira

## 5. INFORMAZIO-ITURRI MOTA DESBERDINAK

- Jatorriaren arabera: Instituzionalak / ofiziosoak
- Iraupenaren arabera: Finkoak (egonkorrak) / Behin-behinekoak
- Gertaerarekiko jarreraren arabera: aktiboak (informazioa bidaltzen dutenak) / pasiboak (informazio berak emango dizu nahi badu, baina berarengandik ez da ekimenik egongo).
- Kokapen administratiboaren arabera: zentralak / lurraldeetakoak.
- Informazio iturriak gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira.
- Gero eta aktiboagoak dira.
- Igorlearen funtzioetan sartzen ari dira.
- Informazio iturri baten arrakastaren gakoak: profesionaltasuna (fina izatea) eta legitimitatea boterearen aurrean.
- Horien ezean... irudimena eta kazetari-teknikak baliatu

# 5. GAIA: LITERATUR KAZETARITZA

## 1. DEFINIZIOA

- **T. Wolfe:** *Berrianizateko asmo duen mugimendu oro gerra eskayzen ari da. Historiaren zakarrontzia adibidez jasoa dago;* **FALTA**
- *"Kazetaritza berria ez zen mugimendu bat izan. Ez zegoen manifestaziorik, klubik, aretorik edota presio-talde antolaturik. Ez izanagatik ez zegoen ezta jarraitzaileak biltzeko kafetegirik ere, ez baitzegoen kreditorik."*
- Nortzuk bildu:
    - Kazetari berritzaileak
    - Zenbait saiogile
- Truman Capote
- Norman Mailer
- Hunter S. Thompson (Gonzo)
- Gabriel García Marquez
- New Journalism kazetari-idazle koadrila baten erronka berritzaile, iraultzaile eta ikonoklasta

    Alkoholikoa naiz. Drogazalea naiz. Homosexuala naiz. Jeinu bat naiz (TC): estilo zorrotz, probokatzailea

- New Journalism: Arau-zale zen gizartean arau-hausle eta bidegile
- Tom Wolfe, aintzindari (1972/1973): "zer" baino gehiago "nola"

## 2. THE CRAZY SIXTIES

- Urtealdi berezi samarra: Politikoki oso aztoratua
    - Kubako iraultza, misilen krisia (AEBk misilak zituen Turkian, SESB amenazatua eukitzeko. Horri aurre egiteko, sobietarrak orduan Kuban jartzea erabaki zuten, hortaz jabetu zirenean amerikarrak negoziazioari ekin zioten eta akordioa izan zen: Kubatik kendu misilak errusiarrek, eta Amerikarrek 6 hilabete beranduago kenduko zituztela).

    - Arrazakeriaren aurkako mugimendua
    - Vietnam-eko gerra (1954-1975)
    - Parisko errebolta
    - Txinako iraultza kulturalaren ikonografia
- Mundu osoan ikaratu, sorgindu, aldatu beharra zegoen (Komunismoaren aldeko ideiak zituztenak zigortzen zituzten, sorgin ehiza… beldur handia zabaldu zen. Mendebaldeko kostaldean sistema sozial eta politiko horren kontrako jarrera gailendu zen, altxamenduak...)
- Kazetaritza Berria (ordura arte oso ondo errespetatzen ziren 5W) mundu aldarazteko palanka zen (American way of life, lur jabegoak…)
- Ohiko kazetaritzaren mugak, edertasunaren antidotoa: hierarkizazioa, lakonismoa, (ustezko) neutraltasuna...
- Tom Wolf: Eleberriari “azken puntada”
- New Journalism edo KB: poesia, espekulazioa, berritasuna, murgiltze-lana, lotsagabetasuna
- Izen ugari (*Literary Journalism, New art of personal reportage, creative nonfiction, Gonzo Journalism)*.
- Hunter S.Thompson (Gonzo):

  “Norabide guztietan, ordu guztietan eromena zegoen… Edozein tokitan txinpartak atera zenitzake. Bazegoen gure artean halako zentzu unibertsal eta zoragarria, zeinak gu egiten ari ginen guztia bidezkoa zela esaten ziguna... Antzina eta Gaizkiaren indarrak garaitzen ari gielako sentsazioa (...) Gure energia, berez, nagusituko zen… uhin eder handi baten (...)

## 3. EZAUGARRIAK, TEKNIKAK ETA EREDUAK

- Kazetaritza eta Literatura, banaezinak.
- Literatur kazetariak lan sakona egin behar du lehenago:
  - Pertsonaien iragana arakatuz
  - Gertakarien background-a ikertuz

- Lau ezaugarri berezi:
  - Kontaketa eszenaz eszena
    - Helburua: Zer gertatu den esatea baino jazoerak eta protagonistak erakustea.
      - Truman Capote: *In cold blood, A beautiful girl*
      - Oriana Fallaci, italiarra da, oso kazetari ona eta garai batean aintzindaria izan zen. Bere garaian oso idazle ona zen.
  - Protagonisten hizketaldien presentzia
    - Helburua: errealismoa lortzea
    - Teknika: Eleberrietan legez, protagonisten berriketaldiak testu barruan txertatu egiten dira. letra etzanez, sarritan.
      - Terry Southern, *Entrevista a un enfermero maricón*
      - Tom Wolfe, *La izquierda exquisita, Maumando al parachoques*
  - Narrazioa ikuspuntu desberdinez azalduta imajinatu elkarrizketa taberna batean egiten dugula eta zerbitzariak elkarrizketatuari "arraro" edo despektiboki begiratzen diola; hori ere sar liteke.
    - Lehen zein hirugarren pertsonaren erabilera
      - Rex Reed, *¿Duerme usted desnuda?*
  - Elementu sinbolikoen agerpena Calatravaren kasuan usoa, adibidez.
    - Helburua: protagonisten nortasun ezaugarriak azaltzea
      - Rex Redd, Ava Gardner
      - Ok Euzkadi! aldizkaria

- Gaur egungo ezaugarriak
    - Adituak bat datoz: Literatur kazetaritza
    - Norman Sims: LK-ren baliabiderik indartsuenak:
        - Murgileta lana
        - Zehastasuna
        - Ahotsa
        - Sinbolismoa
    - Mark Kramer: Literatur kazetarientzako arau hausgarrien zerrenda
        - Jazoeretan murgildu
        - Zehatz eta zintzo aritu
        - Ohiko gertaerez idatzi
        - Intimitatea bilatu; Informaltasuna eta ironia erabili
        - Estilo arantza maneiatu
        - Irakurleak zuzendu
        - Ipuinetako teknikak erabili
        - Erreakzioa bilatu
    - Gaur egungo errealitateaz ikuspuntu desberdinak Amerikan eta Europan.
    - Literatur Kazetaritzak ere baditu bere kritikoak han eta hemen:
        - German Espinosa: Eleberria eta ipuina bide batetik doaz; erreportajea eta kronika beste batetik.
        - Arcadi Espada: Eleberriaren tekniken erabilera gertaeren kontakizunean txertatzea kontraesan ontologikoa eta, ondoriotzat, kazetaritzaren desegitea ekarri du.
        - Gabriel García Marquez: Fundación para un Nueo Periosimo Ibero (...)
        - “Kazetaritza literatur generoa da”

- Ondorioak
    - New Journalism, kazetaritza eta liteartuaren arteko ezkontzatik jaiotako alaba arau-hausle eta bidegilea da.
    - Literatur kazetaritzaren sorrera ezin da ulertu 60ko hamarkadan izandako aldaketak kontuan hartu gabe.
    - LKn literatur teknikak erabiltzen dira baina benetako jazoeretan dago oinarrituta: literaturan dena asmatzen duzu, kamareroa, pasadizoak…. denak baina literatur elkarrizketan ez. Kamareroa benetan existitzen da, elkarrizketatua ere bai, unibertso hori badago baina zuk interpretatu egiten duzu. Ez diozu Bernardo Atxagari, ekarri ez duen txapela asmatuko.
    - Gaur egun "Literatur Kazetaritza" da adituek hobesten duten izendapena.
    - Ikuspuntu desberdinak daude Literatur Kazetaritzak gaur egun duen iraunaldiaz.
    - Gabriel Garcia Marquez: "Kazetariarena da munduan dagoen lanbiderik onena"
    - "Kazetaritza aseezina den pasioa da. Gaixotasun hau jasan ez duen batek nekez imajina dezake zer den bizitzaren gorabeherekin elikatzen den morrontza hori. Horrelakorik bizi ez duen batek doi-doi irudika lezake albisteak sortarazten duen naturaz gaindiko bihozkada hori, esklusibaren orgasmoa edota porrotaren gainbehera morala."

# 2.2. Partehartzeko maila desberdinak eta edukiak editatzeko rolak

Ron Miller-ek honakoa dio eContent aldizkari digitalean[1]:

> The 20th-century notion of a journalist acting as a professional surrogate for his or her readers and helping them understand the nature of a story is, well, so last century. Today, audiences want to be involved in the process. That means that they want to select the news source and maybe even help in the production of a story (or at least participate in a conversation about it).
>
> A few years ago, the idea of citizen journalism—in which citizens not only consume the news, they help produce the news—was born. As Web 2.0 tools have developed, audiences have grown to expect—even demand—to be involved. While the web provides greater access to the world at large, it turns out that many of us want the media to address what's happening close to home, and we not only want to see the news, we want to be the news.

Azken mendekoa da, XX. mendekoa hain zuzen ere, kazetari batek bere irakurleentzat profesional gisa jardutea istorio baten ulertarazten laguntzea. Gaur, ikusle-irakurleek prozesuan parte hartu nahi dute. Horrek esan nahi du albiste iturria hautatzeko prozesuan parte hartu nahi dutela eta baita informazio baten ekoizpenean lagundu ere (edo gutxienez horri buruzko eztabaidan parte hartu).

Duela urte batzuk sortu zen herritarren kazetaritzaren ideia, zeinetan herritarrek kontsumitu ezezik, albisteak ekoizten eta sortzen ere parte hartu nahi zuten. Ikusleak Web 2.0 tresnak garatu ahala, hazi egin da irakurle-ikusleen aldetik parte hartzeko desioa, baita eskaria ere. Web-ak aukera ematen du munduko edonorengana heltzeko, eta horregatik ere sortu da gure aldetik desira bat gertuko gauzen berri jakiteko, albisteak soilik kontsumitu ezezik albisteetako partaide izan nahirik ere.

Bistakoa da kazetaritzan azken boladan izan den aldaketa zertan datzan. Egun, partehartzera bultzatzea garrantzizkoa da oso. Elkar-eragiteko aukerak gero eta usuago ikusten ditugu hedabideetan. Aukera horiek, bistan denez, argiago ageri dira Interneteko hedabideetan. Honako oinarrizko funtzioak eduki ditzake egunkari digitaleko erabiltzaile batek:

1. Komentarista edo iruzkingilea. Oinarrizko elementua da partehartzeko momentuan.

2. Erosle, saltzaile edo iragarlea izan daiteke. Infoguneetan aspaldi honetan denetarik ikusten da, saltzeko eta erosteko zerbitzuak ere eskaintzen direlarik.

---

1 http://www.econtentmag.com/Articles/Editorial/Feature/The-New-Journalism-Its-Audience-Participation-Time-49664.htm

3. Soinuak eta bideoak bidaltzeko aukera.

4. Oinarrizko erreportaiak egiteko aukera weblog eta foroak erabiliz

Bestalde, erabiltzailearen atxikimendua kontutan hartuta, honako bost mailak ikus daitezke:

1. Erabiltzaileak infoguneko arduradunekin harremanetan egoteko aukera du. Horretarako posta elektroniko helbide baten bidez hasten dira harremanak erabiltzaile eta hedabideen artean. Aspaldi honetan, Twitter eta berehalako mezularitza bitartez ere egiten da hori.

2. Erabiltzaileari aukera ematen zaio infoguneko arduradunek programaturiko ekintza batean

3. Erabiltzaileak edukiak argitara ditzake, baina aldez aurretik edukiak kontrolatuz edo baimenduz.

4. Erabiltzailea ko-egile bilakatzen da eta hedabideak emaniko informazioa alda dezake.

5. Erabiltzailea guneko egile nagusia da eta beraz edukiak libertatez argitara ditzake.

1. irudia. URL: http://www.palazio.org/2013/12/user-generated-content-in-newsroom.html



Blogeko egileen rolak ikusi baino lehen, rol edo papera zer den definitu beharra dago. Rola da erabiltzaileei egiten uzten zaien ataza, hau da, egin dezaketen lana webgunearen barruan edo backend deritzonean. Rolak esleitu egiten dira infogunean informazioaren jarioa profesionala eta ondo egina izan dadin. Paperezko egunkarien kasuan bezala, bakoitzak ataza batzuk egin behar ditu, lana ondo burutu ahal izateko.

Blogger eta Wordpress plataformak rol desberdinak eskaintzen dituzte edukiak editatzeko orduan. Wordpress plataforma ahaltsuan rol asko daude:

- Super Admin – Botere osoa duena, hau da, administratzeko aukera guztiak kontrolatzen dituen pertsona. Blog bakanak eta blog sistemak kontrolatzen dituena.
- Administratzailea – gune zehatz baten administrazio osoa kontrolpean daukana
- Editorea – bere sarrerak edo postak eta beste egile edo erabiltzaile batzuenak editatu eta argitaratu ahal dituen pertsona.
- Egilea – sarrerak idatzi eta argitaratu ahal dituena, baina norberaren postak soilik.
- Laguntzailea – sarrerak idatzi ahal dituena, baina argitaratzeko aukerarik gabe.
- Harpideduna – Soslaia baino ezin duena editatu rol hau daukanak.

WordPress instalatzeko unean, automatikoki administratzaile kontu bat sortzen da ahalmen guztiak dituena delako blogean. Webguneko erabiltzaile berrien rol edo papera Ezarpen Orokorretatik defini daiteke.

Google enpresaren Blogger plataforman rolak gutxiago dira Wordpress-en baino. Zehazki, honako pausoak eman behar dira Blogger plataforman editore zenbait edukitzeko:

1. Sartu Blogger sisteman kontu batekin.
2. Hautatu bloga, zeren Blogger-en blog desberdinak egin baitaitezke.
3. Ezkerreko menuan hautatu: Settings > Basic > Permissions.
4. "Blog Authors" atalean, sakatu +Add Authors.
5. Sartu editore berriaren posta elektronikoa gonbitea bidaltzeko.
6. Sakatu “Invite Authors”

Behin zure gonbitea onartutakoan, egileen zerrendan agertuko dira editore berriak. Guztitara 100 pertsona gonbidatu ahal dituzu Blogger plataforman (egileak, administratzaleak edo irakurleak). Bestalde, gogora dezagun gonbidaturiko egile eta administratzaileak Google kontua beharko dutela ukan.



Izan ere, Blogger sisteman editorea edo egilea eta administratzailea dira rolak ondorengo funtzioekin:

Egilea: berak idazten dituen mezu edo sarrerak sortu eta edita ditzake.

Administratzailea: honako gauzak egin ditzake:

- Sortu edo kendu administratzaileak eta egileak
- Blogaren ezarpenetan dauden gauzak edo aukerak aldatu, baita txantiloia ere.
- Editatu edo ezabatu edozien post edo sarrera.




Irudi honetan ikusten da non gehitu eta gonbidatu ahal diren erabiltzaileak. Bideo honetan ikus daiteke prozesu osoa: https://youtu.be/FQx1lzyF8r4

Blogak gutxienez administratzaile bat eduki behar du. Bestalde, gogora dezagun Blogger-en norbaiti adminsitratzaile rola ematen diogunean gu-geu ere ezabatzeko aukera ematen diogula. Hortaz, konfidantza handiko pertsona izan behar da.

# 7. GAIA: HITZALDI - MAHAI - PRENTSAURREKO

## 1. JOKAERA PROFESIONALA

- Kazetaria ez da entzule arrunta, gozatzera doan herritarra. Profesionala da. Ez da hartzaile hutsa ardura duen kazetaria baizik.
- Arreta handiz aditu behar du, informazioa gero beste herritar batzuei, egunkariaren irakurleei helarazteko.
- Etengabeko arreta oso erne xehetasunik ez galtzeko.

## 2. BEHAR BEHARREZKO DATU INFORMATIBOAK

- Datu hauek hartzea ezinbestekotzat jotzen da:
  - Jardunaldi, kongresu edo zikloaren izen edo titulu osoa eta zuzena.
  - Hitzaldia ematen duen pertsonaren izen-deiturak, oso-osorik eta zuzenak.
  - Hizlariaren kargua, lanbidea, jakintza arloa...
  - Hitzaldiaren izena
  - Antolatzailea: talde, erakunde, lagun bat
  - Ekitaldiaren arrazoia edo helburua
  - Non egin den - eraikinak nbatz
  - Hitzaldia non izan den. Batzuetan lekuak berak idazteko materiala eskaintzen du.
  - Hasiera ordua eta iraupena. Ohartu zaitez garaiz edo oso berandu, atzerapenez hasi den eta horren arrazoia.
  - Ikusle edo entzule kopurua, aretoa beterik edo hutsik dagoen, zer jende mota den eta abar.
  - Lehen ekitaldia den kongresua, parte hartze ordena, lagun bat baino gehiago badira, haien izen-abizenak eta lanbidea.

3. **DATU ETA IDEIA BILAKETA AUKERAKETA: DISKURTSOA**
    - Diskurtsoa bera: zer esaten duen, gaia nola dagoen jorratuta.
    - Kazetariak ondo aukeratu eta bereizi beharko ditu ideia edo mezu inportanteenak.
    - Gure kazetari senak argituko digu bidea, garrantzitsuena eta informazio hutsala.

4. **HIZLARIA**
    - Hitzaldira joan baino lehen hizlariari buruzko informazioa jaso beharko dugu: nor den, haren merituak, zer egingo duen…
    - Testuan hizlariaren nortasunaren xehetasunak edo ezaugarriak sartuko ditugu, hitzaldian agerian geratu direnak: pasadizoren bat, bitxikeriaren bat azaldu baldin badu, haren keinua, ahotsak, hizkera mota eta horrek zer agertzen duen: lasaitasuna, urduritasuna, segurtasuna, oldarkorra ote den...

5. **HITZALDIA**
    - zer giro dagoen ikusleen artean
    - hartzailearen jarrera haiekiko
    - entzuleek nola erantzuten dioten hitzaldiari: gustura dauden, aspertuta, aho zabalka,...
    - Lengoaia: kontuan izan beharko dugu zer gai do testu mota den. Horrek aukera ematen du estilo libre edo literarioagoa erabiltzeko. Edo ez.
    - Datuen ordena

## 6. IDAZTEKO UNEA

- Ondo errepasatu hitzaldian hartutako datuak eta informazioa eta ideiak ordenatu.
- Egitura eta teknika
  - Lehen paragrafoa:
  - Datu interesgarriena jarriko ditugu. Ez hasi, inolaz ere “atzo hitzaldi bat eman zuten Bilbon..”
  - Hori atzo edo lehenago izan zen notizia. Gaurko albistea da ZER esan zuen
- Hitzaldiei buruzko informazioetan hiru modu daude, gutxienez, lehen paragrafoa edo sarrera idazteko:
  1. Sumario lead-a edo sarrera xinplea: lehen paragrafora hitzaldian garatutako ideia edo gaia eramaten da.
  2. Ideia anitzeko lead-a edo sarrera: Gai garrantzitsu bat baino gehiago daude; ez da gai potolo bakarra. Hori hala izanik ere, ez da aholkatzen sarrera mota honetan hiru ideia edo gai baino gehiago sartzea, testua oso kargatuta, astuna geratuko bailitzateke.

- Adierazpen edo aipu sarrera:

  Hemen hauxe da garrantzitsuena: aukeratutako aipua berezia, berria, deigarria izatea, Hitzaldiaren gaia oso ondo laburbiltzen duelako edo testuinguruan jartzen duelako, edo ukaezina, erantzunezina.

  Ezaugarriak edozein izanda ere, bata edo bestea, argi eduki: aipuak hitzaldiaren gaiari ondo lotuta egon behar du, lehen irakurketan ulertu behar da zer esan nahi duen pertsona horrek.

## 7. GORPUTZA

- Informazio eta ideiak garrantziaren arabera joango dira, beheranzko ordenan. Bi modu ditugu hori egiteko:
  - Zeharkako estiloa

    - Zeharkako estiloa eta aipuak konbinatzea, txertatzea testuan: Azken aukera hau da onena, testu dinamikoagoa lortzen baitu, nortasuna ematen dio testuari. Hori egitean, kontuz, ondo bereizi iturriak: argi geratu behar du nor ari den hizketan, iturria edo kazetaria. Ez dugu zalantza izpirik izan behar nork esan duen.

**8. HITZALDIA IDAZTEKO ESKEMA ONENA**

- Lead-a edo sarrera: gaia edo pertsonaia aurkeztu.
- Garaiaren ideia bat izan daiteke edo hizlariaren aipu bat.
- Jarraian, paragrafo bat sartu dezakezu: giroa, dokumentu bat, datuak edo zerbait, erritmoa hausteko. Hirugarren paragrafoan aipuak, hitzaldiaren edukiak eta abar. Eskema hau ez da derrigorrezkoa, nahierara egin daiteke, helburu bat gogoan: estilo eta erritmo bizia, koloretsua lortzea.

**9. TITULUA**

1. Estilo klasikoa, formala.
    - Etxeberria: “Zientziak etorkizuna du”.
    - Kasu honetan bitariko aipua ere erabili daiteke, zeharkako estilotik abiatuta.
    - Etorkizunak “zientziaren argia” behar duela azaldu du Etxeberriak.
2. Sormenezkoa.
    - Zientziaren dirdirak geroa argitzen du.
    - Zientziaren dirdira geroa argitzen.

- Bi kasuetan, azpititulua hitzaldia testuinguruan kokatzeko erabiliko dugu: nor, non, zergatik izan den eta abar.

**10. MAHAI INGURUA**

- Hitzaldia baino korapilatsuagoa da, kasu honetan hizlari bat baino gehiago daudelako.
- Eskema bat abiapuntu moduan:
  - Lehen paragrafoan edo sarreran: ideia nagusia
  - Bigarren paragrafoa edo lepoa: parte hartzaileak aurkeztu eta identifikatu. Testuingurua.
  - Beste paragrafokoak: (3.., 4.., 5a) Garapena baina iturria ondo identifikatuta, nork zer esan duen eta gaia. Gai bat amaitu eta besteari heldu, saltoka ibili gabe, nahasgarria da eta.

**11. PRENTSAURREKOA**

- Bi eredu ditugu (Jose Maria C

**12. HITZALDIA**

- **Irizpide eta aholkuak idatzi aurretik**

# 8. GAIA: QUEBECEKO KAZETARIEN KODE ETIKOA

DEONTOLOGIA

1. **ITURRIAK ETA KAZETA MATERIALA BABESTEA**
   - Kazetariek haien iturriak identifikatu behar dituzte.
   - Anonimotasuna azken errekurtsoa da:
     - Informazioa garrantzitsua denean eta hura hedatzeko identifikatu daitekeen iturririk ez dagoenean.
     - Informazioa interes publikokoa denean.
     - Identifikazioak kalteak ekar badiezazkioke anonimotasuna eskatu duen iturriari.
     - Iturriek nahita engainatu ez badute, kazetariak anonimotasuna errespetatu beharko du beti. Iturria zein den esan diezaieke goiko arduradunei, baldin eta horiek ere sekretuari eusten badiote.
     - Kazetari lekukoak: Kazetariak ezin dira Poliziaren informatzaileak izan. Gehienez, argitaratu den informazioa baizik ez dute emango.

2. **BIZITZA PRIBATUA ETA INFORMAZIO ESKUBIDEA**
   - Kazetariak herritarren intimitate eskubidea errespetatu behar du, baita informazio eskubidea ere. Bi eskubide horiek talka egin dezakete. Informazioa interes publikokoa denean, interes publikoa eta ez publikoaren jakinmin hutsa, lehentasuna emango zaio informazioari.

3. **GIZABANAKOAREN ESKUBIDEAK**
   - Kazetariek modu zuzenean, justuan, tratatu behar dute mundu guztia. Arraza, erlijioa, sexu joera edo ezintasun fisiko edo psikikoak ez dira aipatuko, behar-beharrezkoa ez bada.

## 4. INTERES GATAZKA

- Kazetariek hain jarduera independentea auzitan jar lezaketen lan eta jokaerak baztertuko dituzte.

## 5. KLASEKO ARIKETA

- Prentsaurrekoaren giroa deskribatu.
- Mahaian egongo diren pertsona horien egora psikikoa (keinuak, hitzak, jarrerak…)
- Zein izango litzateke kazetariak egingo lieken urrezko galdera?
- Ze erantzun mota izango lituzkete?
- Hiru titulu:
    - Adierazgarria
    - Informatiboa
    - Deigarria

Donald Trumpek dimititu egingo du Ukraniako Presidenteari eskatutako informazioa kanpainian erabiltzeagatik eta abar.

Iñaki Williams Athletic-eko jokalariak, prentsaurrekoa emango du, Realera joango dela esateko, duela gutxi esan zuen ez zela inoiz joango… inolako diru kopuruen truke ez zela joango…

Hondarribiko alkateak esan du Jaizkibel eta tradizionalaren arteko iskanbilak amaitu direla.

**Giroa:** Tentsioa nabaria izango da bi alderdien artean baina egia da Jaizkibel konpainiako kideak eroso egongo dira aurtengo aurrera pausuaren ondoren.

**Egoera psikikoa:** tradizionalekoak amorruz egongo dira, keninuen bidez desadostasuna adieraziko dute, purrustadak, buruakin ezetz. Jaizkibel konpainiakoak lasai agertuko dira, beharrezkoak dituzten argudio eta azalpen luzeak ematen.

- **Zer sentitzen da azkenean, horrenbeste urteren ondoren, alarde parekide bat Hondarribiko kaleetan zehar desfilatzen ikustean?**

  Parekidearen erantzuna: Asebeta sentitzen gara horrenbeste urtez Alardean ere berdintasuna egon zedin borrokatu ondoren, aurten gure gure helburua lortu dugula esan dezakegu.

- **Herritarren artean jarrera aldaketa bat izan da, ala presio mediatikoak bideratu duen aldaketa izan da aurtengoa?**

  Egia da presio mediatikoak zeri ikusi handia izan duela, herritarren aldetik plastiko beltzak aurten ere jaso ditugulako.

  Titulu adierazgarria: Aurten bai!

  Deigarria: Aurtengo Alardea, bai parekidea

  Informatiboa: Aurtengo Hondarribiko Alardean, Jaizkibelek tradizionalekin ateratzea lortu du.

**(hemendik hasi)**

## 6. KAZETARITZAREN DEFINIZIOA

- Kazetari hitzak kazeta albisteak hedatzen dituen edozein erakunderentzat kazetari funtzioa betetzen duen edozein pertsona identifikatzeko balio du. Funtzio horretan zeregin hauetako bat edo beste sar daitezke:
- Ikertu. hedatu eta elkarrizketatzea
- Erreportajeak, analisiak eta zutabeak prestatu eta idaztea.
- Testuak itzuli edo moldatzea.
- Erreportaje fotografikoak, filmatuak edo elektronikoak egitea
- Informazioari lotutako karikaturak, marrazkiak edo grafikoak egitea
- Gaurkotasunezko gaiei buruzko programak edo filmak egitea. Lanak ekoitzi eta gainbegiratzea.

## 7. ZURRUMURRUAK

- Ezin da zurrumurrurik argitaratu iturri fidagarri batetik hartua ez bada, eta gertaera bat ulertzen laguntzeko ezinbestekoa baita. Beti zurrumurru gisa identifikatu behar da. Arlo judizialean debekatuta dago zurrumurrurik hedatzea.

## 8. AIPUAK

- Kazetariek zehatz-mehatz deskribatu behar dute jendeak zer esan duen. Aipuek, berrikusketek soinuek eta abarrek, eta horiek aurkezten diren sekuentziek ezin dute jendearen hitzen esanahia distortsionatu.

## 9. IRUDIAK

- Argazkiak, grafikoak, soinuak eta irudiak argitaratu edo hedatzen dira, baldin eta errealitatea ahalik eta modu zehatzenean islatzen badute.
- Txukunketa artistikoek ezin dute iritzi publikoa engainatu. Irudi edo argazki batzuei ukitu edo aldaketak egin bazaizkie, haien natura identifikatu beharko da.

## 10. PLAGIOA

- Kazetariek ezin dute inoiz plagiorik egin. Beste hedabide batek argitaratu edo zabaldu berri duen informazio baten zati esklusiboa erabiltzen badu, iturria identifikatu beharko du.

## 11. INFORMAZIO BILKETA

- Kazetariek modu argian jarduten dute, haien burua beti ere kazetari gisa identifikatuz. Ohiko kazeta metodoen bidez biltzen duten informazioa: elkarrizketak, ikerketa bibliografikoa, artxibategiak, harremanak, eta abar.

## 12. PROZEDURA SEKRETUAK

- Zenbait kasutan zilegi da informazioa ezkutuko prozeduren bide lortzea; nortasun faltsuak, ezkutuko mikrofono, grabagailu edo argazki makinak, txostenen helburuari buruz informazio zehatza ez ematea, espioitza, infiltrazioa. Metodo hauek salbuespena izango dira eta soilik halako kasuetan erabiliko dira:
    - Informazioa interes publikokoa da erabat. esate baterako, ekintza sozial kritikagarriak salatu behar direnean.
    - Informazio hori lortzeko beste biderik ez dagoenean, edo beste bide batzuk arrakastarik gabe erabili direnean.
    - Gizarteari orokorrean egiten zaion mesedea gizabanakoei egiten zaien kaltea baino handiagoa denean.
    - Publikoari erabilitako metodoen berri eman behar zaio.

## 13. JAZARPENA

- Kazetariek errukia eta begirunea izan behar dute tragediak pairatu dituen jendearekiko, eta haren gurbileko lagunekiko. Ez dituzte jazarriko informazioa lortzeko.

# 9. GAIA: LITERATUR ELKARRIZKETA

“Literatur elkarrizketa sormen artistikoaren emaitza dugu” Montse Quesada (1994)

## 1. SORMENEZKO ELKARRIZKETAK

- Eguneroko lanean elkarrizketa mota asko daude.
- Bi dira garrantzitsuenak:
  - Kazetaritza-elkarrizketa (gaurkotasunari lotua)
  - Literatur elkarrizketa (pertsona ezagunak dira; gaurkotasuna ez da ezinbestekoa).
- Horrez gain, ikerketa-elkarrizketak. Helburu desberdinak dira.
- Genero bezala, oso zaila da.
- Gutxi ikertu da. Teoria gutxi dago, gainera.
- Literatur elkarrizketak kazetariaren maila ematen duen generoa da.
- Literatur elkarrizketak protagonismo handia hartu du.
- Uneon, ez da erreportajearen barruan sartzen; gaur egun, elkar. Teknika profesional, autonomo eta espezializatu bezala ikusten da.
- Kazetariak gauza asko egin behar ditu batera: entzun, behatu, ulertu, egin, galderak egin, oroitu, solasaldia bideratu...
- M. Quesada: “*Lit. Elkar. sormen artistikoaren emaitza”*
- Den-dena islatu behar da: giroa, keinuak, jarrerak, testuingurua...
- Kazetariak sortzaile dela frogatu behar du.
- Euskarazko kazetaritzan: *Oh! Ezkadi* (1980-83) → K. Izagirre, R. Saizarbitoria, X. Agirresarobe, R. Etxezarreta...
- Espainian: R. Montero *(El País semanal)*; Jesús Quintero *(El loco de la colina)* → TVE/A3
- Kalitatea behar da. Besterik ez.

## 2. PRESTAERA

- Prozesu interaktiboa behar du izan
- Den-dena da garrantzitsua: aurreneko pausuak: elkarrizketatuaren inguruko datu-bilketa, galdetegiaren prestaketa, testuaren idazkera...
- Elkarrizketa nola eskatu: behar den pertsonari eta behar den tokian (komunikazio arduradunak); adeitasuna, jarrera irekia.
- Pertsonaia publikoen portaera ezagutu eta aztertu. Pazientzia izan.
- Alea eta lastoa bereizi (funtsezkoa eta bigarren mailakoa).
- Idazkera asko zaindu behar da: testuaren egiletza oso berea da, kazetariarena, alegia.
- Testua argitaratu aurrik, elkarrizketatuari pasa behar zaio?
- Interesgune nagusia: elkarrizketatua, bere nortasuna, bere bizimodu, gaurkotasuna (agian).
- Oso garrantzitsua: Kazetari-egokiera → pertsonaia elkarrizketatzeko aukeratzen den unearen egokitasuna (noiz eta non egiten den). Gaurkotasunezkoa bada, hainbat hobe.
- Kazetari egokiera eta kazetari-sena harremanetan daude.
- Elkarrizketa hauek atenporalak dira.
- Dokumentazio-fasea, datu-bilketa, oso garrantzitsua da, ezin-bestekoa. Elkarrizketatuaren background osoa aztertu behar dugu: bere historia, bere idazlanak, obrak, egindako adierazpenak, fobiak eta filiak, zaletasunak, alde onak eta txarrak… den-dena arakatu behar dugu, inoren intimitatea urratu gabe, noski.
- Galdetegia ere, funtsezkoa: idatzita eraman, gidoirik onena izango da eta.

## 3. ELKARRIZKETATZAILEA

- Kazetariak helburua garbi izan behar du: elkarrizketatua
- Adeitasunez tratatu bai; jarrera otzanik ez, ordea.
- Ausardia zorroztasuna, baina.. “gatza ez dadila ozpina bihurtu”

- Zentzuduna izan, ez setatia.
- Zorrotza bai, polizi-itaunketarik ez
- Elkarrizketan murgildu, solasaldian, alegia.
- Egoera kontrolatu: “savoir faire”
- Elkarrizketatua “iheskorra”, “labaina” baldin bada: kazetari-senari eutsi, giroa zapuztu gabe
- Gidoia oso ongi prestatu; inprobisatzeko tarte gutxi utzi
- Abilezia erakutsi, gidoiari eusteko, nahiz alde egiteko.
- Elkarrizketatua, maila psikologikoan ere, aztertu; gezur biribilak ala egiazkiro noiz ari den mintzatzen detektatu ahal izateko.
- Dokumentazio-lana funtsezkoa da segurtasuna erakusteko.
- Jarrera irekia erakutsi, aurreiritzirik gabe.
- Titulua ezin da aldez aurretik erabaki
- Lan espezializatua da oso.
- Hitz-jario txukuna, argia, egokia..
- Entzuten ikasi behar da.
- Giza-lege aritu: adeitsuki, begirada begietara zuzendu.
- Lausenguak… pasatu gabe. Ez gehiegizko kortesia, ezta etsai giroa ere: normaltasunez jokatu
- Kontrolatu elkarrizketa non egiten den, horrek ere bere garrantzia baitu: Oso erne egon, erabateko kontrola izan.

## 4. ELKARRIZKETATUA

- Elkarrizketatuak ere badu elkarrizketaren giltza.
- Bere jarrera erabakigarria da: hiztun ederra bada… lehor samarra bada...
- Kazetariak “soka-tiran” aritzeko abilezia erakutsi beharko du, elkarrizketatuen artean denetarik baitago

- Elkarrizketatuaren nortasuna azaltzea. Horixe da gure xedea.
- Elkarrizketatuaren eta elkarrizketatzailearen artean denak du bere garrantzia: bere adina, gizarte-maila “lehenengo inpresioa”, sexu berokoak ote direnetz.. feed-back emankorra lortzea da helburu.
- Giza-interesak ere garrantzi itzela du. Interes hori emarazten duten faktoreak: zirrara, gatazka, harrotasuna, suspentsea, bortxa eta sexua.
- Kontuz gero! Horren degradazioa aski ezaguna zaigu-eta: *reality show*
- Giza interesa eta morboa desberdinak dira

## 5. NOLA EGIN LITERATUR ELKARRIZKETA

**Solasaldia eta harremana**

- Harremanetan jartzeko modua ez da txantxetako kontua. Lehenengo inpresioak asko balio du.
- Solaserako abilezia eta gogoa
- Gidoitik at ateratzeko trebetasuna.
- Galdera zehatzak egin.
- Solasa eteteko artea ere izan behar da.
- Hika ala zuka? Hika bada, hitanoaren arauak errespetatu behar dira.

<u>5W</u>

- Nor: elkarrizketatua
- Zer: berak dioenaz gain, bera inguratzen duen guztia (background)
- Nola: pertsonaiaren deskribapena (literatur irudiak erabili), sarreraz baliatu
- Non: lekuaren egokiera
- Noiz: kazetari-egokiera izan

**Teknologia**

- Dena ondo konprobatu
- Argazkien garrantzia
- Lan-koadernoa eraman: oharrak hartu

## 6. EGITURA

- Legerik ez da
- Elementu batzuk komunak dira
    - Sarrera → elkarrizketatua identifikatzeko
    - Ataria → Elkarrizketaren ardatz nagusiak gehiago finkatzeko
    - Gorputza → Elkarrizketaren eduki nagusia
- Galdera-erantzun sistema? bai edo ez. Lan sortzailea xede.
- Kazetariaren ekarpenak ere tartekatzen dira (edo ez).
- Lan-sortzailea behar bezala azalarazteak kezkatu behar gaitu.
- Elkarrizketatuaren *background*-a elkarrizketa osoan azalduko da, toki zehatzik izan gabe.
- Idazlan sortzaile horretan bi aila bereizten dira:
    - Irakurketa denotatiboa eskatzen dutenak (apaingarri estetikorik gabe)
    - Irakurketa konnotatiboa eskatzen duten tarteak (literatur irudiak erabiliz)

# 10. GAIA: KRONIKA INTERPRETATZAILEA

## 1. JATORRIA ETA DEFINIZIOA

- Genero berezia da, informazioaren eta iritziaren arteko mugan dagien generoa dugu.
- Historian, aurrekaririk badira: Erdi Aroko kronika errimatuak (Alfontso X.a Jakitunak agindu *Cronica general.*. (1270) Kanpotik norbait joaten zenean Gaztelara, Alfonsok kronika idatzi ohi zuen hari buruz
- Beraz, genero informatiboa baino lehenago literatur generoa izan zen.
- Hibridazioaren erakusle: ez da albistea, ez iritzizko iruzkina, ezta erreportajea ere.
- Kronika latinoa da, batik bat.
- Eremu anglosaxoniarrean apenas ematen den fenomenoa;han, informazioa eta iritziaren arteko bereizketa oso zurruna da
- *EL PAIS* Egunkariko Estilo Liburuaren definizioa: Hauxe duzu kronika: albistearen, iritziaren eta erreportajearen artean dabilen generoa
- Efe agentzia: “Hauxe dugu kronika: estilo aldetik askatasun nahiaz idazten den informazioa, non egileak ikusmoldea osagarria eskaintzen duen, dela kontatzen ari den gertakizunaren lekukoa izan delako, dela protagonistekin hartueman zuzenak izan dituelako”.
- Martin Vivaldi: “Gertaera notizioso eta eguneratuen informazio interpretatibo eta baloratiboa da, non kontatzeaz gain, jazoera bera ere juzgatua izaten den”.

## 2. “BATXI”, LEHEN KRONIKARI EUSKALDUNA

- Juan Bautista Bilaboa, “Batxi”, Koldo Izagirre // Iñigo Aranbarri, Hau mundu arrano hau, Susa argitaletxea, 1997.
- Juan bautista Bilbao orain arte oso jende gutxik ezagutzen zuen euskal idazlea dugu. XX. mende hasierakoa da, bi urtetan -1931ko abendutik 1916ko urtarrilera bitartean egindako produkzioa da berak utzitako lana. Libururik argitaratu gabeko idazlea bada ere, *Euzkadi* egunkarirako ehunka kronika idatzi zituen.

- Zamaontzi baten egin zuen lan 17 urtez, horniketa-lanetan; Europa eta Afrika osoa ezagutu zuen; lehen mundu gerrak bete-betean harrapatu zuen.
- 1916an hil aurreko mezua: *“Agur abertzaleak. Arrisku handietan gabiltza itsastarrok, ba ez dago egunik untziren bat hondora ez doanik, alemaniarrek ipiniriko mina batek jota. Otoi eizue ba Ama Birjinari itsasoan gabiltzan gizon txiroen aldez”.*
- Batxiren kroniketan gai unibertsalak agertzen dira: “*Batxi gai da ezagutu dituen dekoratu egokiak sortzeko: begiak erreko dizkioten ostatu zikinak, gerrara doazen soldaduz beteriko karrikak, propaganda filmeak erakusten diren zinema aretoak… unibertsaltasuna azken batean. Modernoa, zibila, lagunmin zuen Kirikiñoren beraren txokokeriatik aski urrundua. Horrelakoa zen Juan Bautista Bilbao, Batxi”. (*Izagirre / Aranbarri)

## 3. EREDU BAT

- Egileak askatasun handia erakusten du:
  - Ez dago lead ezagunik
  - Lgo. pertsona
  - Ez da iritzi artikulua, ez albistea edo erreportajea; ezta analisia ere (ez dira analisiaren elementuak ageri)
  - Beste “zerbait” da
- Politika alorrean ere, berdin. Gona hemen albiste politiko bat:
- *Hiruko Gobernua sostengatzen duten alderdiek bere baietza eman zioten atzo Eusko Legebiltzarrean Javier Retegi sailburu jeltzaleak aurkeztu zuen Energia planari. Egitasmo horrek 2005. urtera arte irauteko asmoa du. Bertan, besteak beste, EAEn hurrengo zortzi urteetan ezarriko diren parke eolikoak azaltzen dira. Zazpi izango dira guztira: hiru Gipuzkoan, bi Araban eta beste bi Bizkaian.*
- Eta hona hemen gertaera bera, kronika modura azalduta:
- *Azken hamar hilabeteotan, hainbat nekealdi jasan eta izerdi bota ondoren, Javier Retegi sailburu jeltzaleak lasai-lasai eta hanka zabal egingo du lo gaur. Legebiltzarrak atzo azkenik bere oniritzia eman zion berak bultzatu duen Energia planari. Bozketaren emaitzak kontrako irudia eman lezakeen arren, Retegi sailburuak asko sufritu behar izan du bere egitasmoa aurrera ateratzeko, proiektu horrek aurkako asko eta oso kualifikatuak gainera -batzuk etxe barruan-izan dituelako.*
- Nabariak dira bien arteko desberdintasunak

## 4. KRONIKAREN EZAUGARRIAK

- Lege zurrunik ez da, ezta egitura edo arau zehatzik ere.
- Askatasun estilistiko honen muga hauxe da, gertaerak berak ezartzen duena; estiloak bat etorri behar du gertaera horren erritmoarekin, malgutasun handiz, baina bat etorri behar du.
- Eskema egin
- Estiloak argia, zehatza eta laburra behar du izan; hau da, esanguratsua, mamitsua, hartzailea harrapatzeko modukoa… Horretarako, kronikari on batek nahi adinako baliabide estilistiko erabil ditzake: metaforak, ironia, paradoxak, hiperbolea (exagerazioa, gizon *erraldoia*).
- Egitura argia eta sendoa
- Uxatu: iluntasun oso, hitzontzikeriak (berritsukeriak), okerdura estilistiko guztiak eta estilo hanpatua.

### TEKNIKA ETA ESTILOA

- Helburua: hartu-eman “beroa” lortzea.
- Titulu erakargarriak, esanguratsuak.
- Bitxikeriak azaldu.
- Gertaeraren fisiologia, psikologia eta filosofia azaldu behar da.
- Gertaera, bertatik behera.

### FORMA

- Librea, (estiloa bezala), informatibo-narratiboa.
- Baliteke iraulitako piramidearen eskema ere azaltzea: Hil egin direla. Horixe da dakigun bakarra; ez nola, ezta zergatik ere. Beste hiru pertsona, beste hiru heriotza espazioaren konkistarako bidean. Hauek dira beren izenak: Gergi Dobrovlsky teniente koronela, Vladislav Volkov hegalaldiaren injinerua eta Viktor Patzaiev teknikaria.

  *(...) Zergatik edo nolatan hil diren? Momentuz inork ez du ezer garbirik esan. Hauen heriotza espazioaren baitan dagoen beste misterio bat da. Beste bat* (Ya, 1971an)
- Kronika bereziak dira horiek.

## GAIA

- Gertaera, abiapuntu eta abiatzaile
- Jazoera interpretatu, baina analisiaren teknika zorrotzak erabili gabe.
- Interpretazioa oso era librean.
- Kazetariak, gertaeren gainetik “hegan” egiten du.

## EGILEA

- Kazetaria da
- Esperientziaduna
- Zer, Nola
- Sinadurak prestigioa du

## HELBURUA

- Informatu, orientatu
- Gertaeraren benetako dimentsioa agertu
- Atsegina eman irakurleari

## 5. KRONIKA MOTA DESBERDINAK

- Tokiaren arabera:
  - Nazioarteko kronikaria
  - Gerrarako korrespontsala
  - Herriko kronikaria
  - Bidaietako kronikaria
- Gaiaren arabera:
  - Ezbeharretako kronikaria
  - Epaitegietako kronika
  - Politikakoa
  - Kirolezkoa
  - Zezen kronika
  - Kulturazko

ARIKETA

Bilera Sanchezek eta Iglesiasek, 5 orduz izan dira bilduta eta ez dago ezer fijo: akordioa badago baina ERCren abstentzioa behar dute gobernua sortzeko.

Bilera bukatu baino 5minutu lehenago, Rufianek deitu du lehenengo Iglesiasekin 10minutuz, Iglesias bilerara bueltatu da Pedro Sanchezenena. Pedro Sanchez arpegi haserrearekin atera da.

30 minutuz Rufianekin hitz egiten, eta bueltatu denean zoriontasun aurpegia zuen Sanchezek. Bileratik atera dira Iglesias eta Sanchez, eta esan dute: ERCren abstentzioa lortu dugu Sanchez presidente egiteko.

- 2-3 hitzeko titulua
- Kronikaren sarrerako 4-5 lerro

**Izenburua**

Moncloako dei erabakigarriena

**Sarrera**

Alderdi bitasunaren amaiera zirudienak sozialisten lehendakaritza iragarri du bost ordu luzeko bilkuraren ostean. Espainiak izango duen hurrengo Gobernuak bela ezkerrerantz gidatuko duela dirudi, Pablo Iglesiasen alderdiaren elkarlanarekin eta ERC-ren abstentzioak lagunduta. Eguna tentsio handiarekin hasi bada ere, Diputatuen Kongresuko bozeramaile katalanak egindako pare bat deiren ostean baretu dira marea biziak.

# 11. GAIA: ERREPORTAJE INTERPRETATZAILEA

"Erreportaje interpretatzailea lan sakonaren ondorioa da", Neale Copple.

## 1. JATORRIA

- Ikasleari Genero informatiboak ezagunzak zaizkio: albistea, kronika elkarrizketa.. eta erreportaje ere bai; Mota asko daude: erreportaje informatiboa (aipuzkoa, gaurkotasun-erreportajea…), ikerkuntza erreportaje eta erreportaje sakona edo interpretatzailea. Azken hori da gure helburu.
- Erreportaje informatiboetan, kazetariak bere abilezia erakutsi behar du.
- Erreportaje interpretatiboetan, kazetariak: bere maisutasuna; bai erritmoari, bai hizkuntzaren erabilerari dagokienean.
- Nondik dator? kazetaritza interpretatiboak dituen muga zurrunetatik (piramide iraulia, 5W, aseptikotasuna…)
- Err. interp. oso baliagarria gertaera konplexuak azaltzeko, aspektu gizatiarra markatzeko, hartzailea liluratzeko, istorioan murgiltzeko
- Aldizkariak, aintzindari; kazetek ezin egin zezaketena newsmagazine-k egin zuten.
- 60ko hamarkada: garai oso emankorra, kazetaritza berriaren fenomenoari lotuta.
- Hala ere, erreportaje interpretatiboaren lehen aztarnak *Time* aldizkarian (1923): *Timestyle*. Teorizazio mardula egin zuten. Kazetari deskriptiboaren mugak hizpide eta kezka iturri: kazetari-lanen antolaketa, lakonismo espresiboa eta objektibotasunaren dimentsio berria. Hura izan zen Ohiko kazetaritzatik aldentzeko lehen saioa.
- Erreportaje interpretatzailea ohiko kazetaritzak izan duen bilakaeraren adierazle garbia da. Kazetariak askatasun estilistiko eta formal gehiago ditu. bere "ukitu pertsonala" uzteko aukera du orain.
- Gaur egun, adibide ugari, gaurkotasunari lotuak
- Prentsak gehiago sentitu du erreportaje interpretatiboa edo sakonaren beharra.
- Ikus-entzunezko medioen abantailak (irudia, azkartasuna)

- Prentsak ere bere abantailak baditu (M. Vivaldi): denbora, espazioa eta sendotasuna

- Errepotari onaren ezaugarriak = kazetari onaren ezaugarriak: etiketaduna, lead hizkuntza, hizkuntza(k), kazetari sena + behatzaile aparta (zorrotza, sakona): *“Ezin zara azalean geratu, sakondu behar duzu”.*

## 2. ERREPORTAJEAREN AZTARNAK EUSKARAZKO PRENTSAN

- Lehen erreportajeak euskaraz *Argia* astekarian (1921-1936). Hona hemen lehen erreportajearen titulua (1921) (J Dz. Nozi):

  “Gipuzkoa’ko zahar zaharren alde” titulu adierazgarria

- Gregorio Mugika zen egile, argazkigile: Ez zen erreportaje interpretatiboa. Erreportaje informatiboa baino gehiago publierreportajea izan zen hura: Gipuzkoako Kutxak lurralde horretan bizi ziren 90 urtetik gorako agure-atsoei emango zien diru-laguntzen berri ematen baitzen. Honatx pasarte esanguratsu hau:

  *“Aiton-amona zar oiek obetxeago bizi ditezen, Gipuzkoa’ko Aurrexkitegia’k (Aorro-Kajak) asmo eder hartu ta aurrera eraman du: 90 urtetik gorako zar beartsuai, Gipuzkoakoa’n jaio ta bizi badira ta zuzen bizi izan badira, diru-laguntza ematea”.*

- Bestelakoak izan ziren gero Argian (1922) Egunan (1937) eta gaur egungo euskarazko prentsan.

## 3. TEKNIKA ETA ESTILOA

- Adostasunik ez da; ez adituen artean, ezta kazetarien arten ere. kazetari bakoitzak, egunkari bakoitzak estilo propioa landu du.

- Logikak agintzen du. Baita esperientziak ere.

- Zein da titulurik egokiena: profesionalarena ala erakargarriena?

- Zentzu komunak agindu behar du: gaia gertutik ezagutu, berriemaileak istorioa menperatu behar du eta ez alderantziz.

- Non? Asteburuetako gehigarrietan (ez horietan bakarrik).

- Diseinuak ere lagundu behar du: irakurgarritasuna ahalbidetu, atentzio-gune desberdinak garbi eduki.

- Sumarioak, zatidurak, boloak, infogramak erabili…, zuri-guneak errespetatu. Idazlan txukunak aurkeztu: irakurleari atsegina eman.

- Teoria desberdinak: M. Vivaldi, Mz. Albertos, N. Copple.

- **MARTIN VIVALDI**
    - Irizpide nagusiak
        - Behatzeko gaitasuna izan
        - Gertaerak analizatzeko trebezia
        - Prozedura zientifikoa erabili (hipotesia…)
        - Azalpen zehatza
    - Aholkuak (idazten hasi aurretik kontuan hartzekoak)
        - Eskema egin
        - Gogoan izan: non sartu pasarterik deigarrienak?
        - “Klimaxa” zeren inguruan?
        - Klimaxaren ondoren, erritmoa zaindu
        - Sarrera kementsua, atsegina
        - Amaiera koherentea, indartsua
        - Bitxikeriak sartu
        - Koherentzia bilatu

- **MZ. ALBERTOS**
    - Albisteak eta erreportaje interpretatiboek ez dute egitura bera erabiltzen
    - Albisteetan: kazetaria gertaeratik albistera doa
    - Erreportaje interpretatiboetan ez. Kazetariak bestekako lana egin bejar du horren aurretik:
        - Gai nagusiaren aurrekariak bilatu
        - Dokumentazioa bildu
        - Analisia egin

    - Abiapuntua (batzuetan) ez da jazoera bat, iritzi sendo bat baizik.

    - Hiru zatiok agertu beharko lirateke:
        - Tesi nagusia (leada)
        - Gorputza (datu metaketa logikoa)
        - Amaiera



LEAD (atariko lerroaldea): Erreportaia interpretatiboaren tesi nagusia

GORPUTZA: Datuen azalpen logikoa. Bertan jazoerak, iritziak, lekukotasunak, aipuak… azalduko dira, atariko lerroalde horretan azaltzen den ordena logikoari jarraiki. Zatioz elkarri lotuta agertuko dira.

AMAIERA: Hasierako tesia gogorarazteko tartea. Oso garrantzitsua.

- **NEALE COPPLE**
    - Kazetaritza berriaren teoriko handienetakoa.
    - Bere ustez, *depth reporting* edo erreportaje sakonaren elementuak hauek dira:
        - Aurrekariak
        - Alde gizatiarra kontuan izan (hartzailearen presentzia)
        - Interpretazio lana: jazoera esplikatu, azaldu eta argitu.
        - Ikerketa lana: ezkutuan dagoena agerian utzi.
        - Orientatze-lana: jazoera hartzailearen bizimodu arruntean kokatu.
    - Erreportaje interpretatzailea lan sakonaren ondorioa da, non jazoeraren aurrekariek, interpretazio-lanak eta analisiak aparteko garrantzia hartzen duten.

4. **ERREPORTAJEA: CARLOS MARÍN**

**(diapositiba bat pasa du, honen aurretik beste bat dago, egelan begiratu)**

- **ERREPORTAJE MOTA NAGUSIAK**
    - Erreportaje **demostratiboa:** Zerbait erakutsi eta frogatu egiten du. Kazetariak arazoak aurkitzen ditu; gaitzak salatzen ditu… Arazoren sakonera doa; ez da azalean geratzen, oinarrizko arrazoi, kausetarako jotzen du panorama ahalik eta zehatz eta osatuena eskaintzeko asmoz.
    - Erreportaje **deskriptiboa:** pintura, margo batekin konparatu daiteke. Literatura-pintura da, benetako pertsonak, gauzak eta lekuak marrazten dituena. Pertsonaia-elkarrizketaren itxura du, diferentzia batekin: pertsona bati buruzko erreportaje deskriptiboan ez dago, derrigorrez, pertsonaiaren eta kazetariaren arteko elkarrizketarik. Esaterako, hitzekin egindako koadro bat izango litzateke.
    - Erreportaje **narratiboa:** erreportaje demostratiboaren azterketari eta erreportaje deskriptiboaren behaketa zuzen eta zehaztuari ekintza gehitzen zaie erreportaje narratiboan. Ekintza da erreportaje mota honen ezaugarri garrantzitsuena: kontatzen diren gertakarien, azaltzen diren istorioen denbora-mugimendua.
        - Erreportaje **deskriptiboa:** estatikoa da, apenas duen mugimendurik. Iraganera doanean leku bat nolakoa zen deskribatzeko, orainaren deskripzioa sustengatzeko egiten da. Ez da pixkanakako garapen kronologikoa egiten, erreportaje narratiboan egiten den bezala.

- **ERREPORTAJEAREN EGITURA**
    - Erreportaje baten egitura tipikoa halakoxea izan daiteke: sarrera, garapena eta bukaera edo errematea.
    - **SARRERA**

      Erreportajearen hasierak arreta piztu behar du, irakurlearen jakin-mina esnatu, irakurtzen segitzera gonbidatu. Erabat aseta geratzeko azken lerroraino irakurri beharko du herritarrak. hainbat modu ditu:

- **Panorama-sarrera:** Aferaren edo auziaren laburpena eskaintzen duena, ikuspegi panorama.
- **Sarrera deskriptiboa:** Erreportajeko objektuaren eszenatokia, giroa, atmosfera deskribatzen ditu.
- **Kontraste sarrera:** konparatze elementuak aurkezten dira.
- **Xehetasun sarrera:** osagai txiki baten bidez irakurlearen arreta pizten da.
- **Lagunarteko sarrera:** kazetaria irakurlearekin hizketan hasi dela dirudi, lana haren interesak gogoan egin zuela sentiarazteko.

○ **GARAPENA**

Gaika edo iturrien araberakoa izan daiteke, beste batzuen artean. Interesa etengabe berritzen duen egitura bilatu behar du. Paragrafo bakoitzean handiagotzen da irakurlearen arreta.

○ **AMAIERA EDO ERREMATEA**

Urrearen balioa du amaiera bikaina emateak. Hainbat modu daude erremate egiteko. Hemen ditugu batzuk:

- **Itzulera errematea:** Hasieran erabilitako elementu berberarekin bukatzen da. Biribildu egiten da testua, "lan bukatua" dela esango genuke.
- **Ondorio errematea:** erreportaje demostratiboetan ematen da. Iritziak eta datuak erakutsi eta gero, kazetariak ondorio logikoak laburbiltzen ditu.
- **Iradokizun errematea:** irakurleak aholkatu egiten ditu, bideratu, kontatu denaren aurrean jarrera jakin baten alde egiteko.
- **Erremate erabatekoa:** Esaldi batekin edo gehiagorekin bukatzen da, ahalik eta gutxienekin, erreportajearen zentzua, mamia, modu zorrotzean islatzeko. Elementu objektiboak eta kazetariaren iritziak txertatuz lor daiteke.
- **Xehetasun errematea:** anekdota, bitxikeria, eszena txiki batez bukatzen da.

**AZTERKETA EREDUAK, JOSE MARI PASTOR**

* 30 galderetatik 18 asmatu, puntu negatiboрик ez

**1.** a. ONDO: Politikarien mezu iluna argitu behar dio kazetariak irakurleari, beti ere Restonen ustez

b. Euskarazko lehen literatura elkarrizketak eguna egunkariak argitaratu zituen

c. Euskarazko lehen erreportaje Gipuzkoa`ko herritar zaharraren alde izan zen eta Argia astekariak argitaratu zuen 1921ean.

d. Euskarazko lehen erreportajea Gipuzkoako adinekoen alde

**2.** a. Batxi kronikariaren lehen lana hau mundu arrano hau izan zen

b. Kaliforniako gazteen industria ekimenak literatura kazetaritzari eragin zion

c. Informatuta egoteak ahalegin minimoa eskatzen duela dio Jose Luis Ramonetek

d. ONDO: Mezuaren eraginkortasunerako ezinbestekoak dira iturrien prestigioa eta fidagarritasuna

**3.** a. Zurrumurrua inoiz ez da albistea

b. Elementu sinbolikoen agerpena da literatura kazetaritzaren hiru ezaugarri nagusietako bat

c. Wolfe, Capote, Mailer, Fallaci eta Chomsky dira, besteak beste, literatura kazetaritzaren aintzindariak

d. ONDO: Kazeta testu hau ondo dago: akusazioa “txorakeria” dela esan du lehendakariak. (Kazeta titulu hau jarriko bazun gaizki egongo zan, bukaeran, puntua agertzen delako eta tituluek ez dute punturik! baina testua jartzen duenez, ondo dago)

**4.** a.Interpretazio kazetaritzaren teorizazioa Time aldizkarian hasi zen, 1933.urtean. (1923da data)

b. ONDO: “Eleberria eta ipuinak alde batetik doaz; erreportaje eta kronika beste batetik” (Espinosa)

c. Literatura kazetaritzan zer gertatu den azaltzea da garrantzitsuena (ez, NOLA gertatu den kontatzea)

d. Oh Euskadi! aldizkariaren Koldo Izagirre, Ramon Saizarbitoria eta Ramon Etxezarreta ibili ziren, besteak beste. (Euzkadi Zrekin da)

Titulo hau ondo dago: “.....”. Puntua badu amaieran, gaizki!
Baina kazeta testu bat jartzen badu ondo dago.



a. Batxi kronikariaren lehen lana *Hau mundu arrano hau* izan zen
b. Kaliforniako gazteen industria ekimenak literatura kazetaritzari eragin zion
c. Informatuta egoteak ahalegin minimoa eskatzen duela dio Jose Luis Ramonetek
d. Mezuaren eraginkortasunerako ezinbestekoak dira iturrien prestigioa eta fidagarritasuna

a. Zurrumurrua inoiz ez da albistea
b. Elementu sinbolikoen agerpena da literatura kazetaritzaren hiru ezaugarri nagusietako bat
c. Wolfe, Capote, Mailer, Fallaci eta Chomsky dira, besteak beste, literatura kazetaritzaren aitzindariak
d. Kazeta testu hau ondo dago: *Akusazioa “txorakeria” dela esan du lehendakariak.*

a. Interpretazio kazetaritzaren teorizazioa *Time* aldizkarian hasi zen, 1933. urtean
b- “Eleberria eta ipuinak alde batetik doaz; erreportajea eta kronika beste batetik” (Espinosa)
c- Literatura kazetaritzan zer gertatu den azaltzea da garrantzitsuena
d- *Oh Euskadi!* aldizkarian Koldo Izagirre, Ramon Saizarbitoria eta Ramon Etxezarreta ibili ziren, besteak beste



1.-

a- Politikarien mezu iluna argitu behar dio kazetariak irakurleari, beti ere Restonen ustez
b- Euskarazko lehen literatura elkarrizketak *Eguna* egunkariak argitaratu zituen
c- Euskarazko lehen erreportajea *Gipuzkoa'ko herritar zaharren alde* izan zen eta *Argia* astekariak argitaratu zuen 1921ean
d- Euskarazko lehen erreportajea, *Gipuzkoa'ko adinekoen alde*, 1926an argitaratu zuen *Argia* astekariak

2.-

a- Irakurketa denotatiboak apaingarri estetikoak ditu
b- Erreportaje interpretatzaileak *New York Times* egunkarian egin zituen lehen urratsak
c- Gure bizimodua, giza harremanak eta inguratzen gaituen mundua *gatekeeping* prozesuaren ondorioak dira
d- Irakurketa konnotatiboa apaingarri estetikorik gabekoa da

3.-

a- Interpretazio kazetaritzak *lead* interpretatzailea du, eta silogismoetan oinarritutako egitura
b- *Gipuzkoa'ko zar-zarren* alde izan zen euskarazko lehen erreportajea

Emakume bat sexu erasoa jasan du eta onik atera da → hori gaizki dago.
“Baina ihes egitea lortu du” → hori ondo dago
baina puntu bat badu amaieran, hori gaizki dago (titularrak inoiz ez puntua)
baina badio esaldiak: kazeta testu honek honela dio “.....”. → hori ondo dago, testu barruan puntua ondo dago